



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresa **hezkuntzarekiko eta heziketarekiko interesa duen kide orori** zuzenduta dago. Zerbitzu hau merkatu masibo honentzat irisgarria izateko hainbat bitartekariz baliatzen gara, horien artean, hezkuntza formaleko eskolak, izan publikoak, pribatuak edota kontzertatutak. Era berean, gure xede-bezeroak bilakatzen dira bitartekari hauek izan instituzio, norbanako edo familia gisa parte hartuz. Beraz, alde batetik gure **bezero nagusiak** haurrak, familiak eta hezitzaileak izango dira.

Hala ere, eskaintzen dugun balorezko proposamena **merkatuaren segmentu** bati zuzentzen zaio. Hezkuntza komunitateko partaideei natura eta hezkuntza elkarlotzen dituen espazioa eskaintzen diegu. Horregatik, gure bezeroen perfila naturazalea eta heziketarekiko interesa duena izango da. Bestalde, heziketa pertsonala bilatzen duten norbanakoak ere gure xede bezeroak izango dira. Izan ere, jarduera batzuk heziketa pertsonalera bideratutakoak izango dira: adituen hitzaldiak, yoga saioak, tailerrak...

Horrez gain, bezero zehatz eta bereziak ere izango ditugu gure kooperatibaren bazkideak eta aldizkariko harpide. Hauekin komunikazio kanalak pertsonalizatuagoak izango dira, hilabeteroko aldizkaria jasoko baitute.

Ondorioz, gure negozio eredua segmentatutako merkatuari zuzendutakoa izango da, natura eta heziketarekiko jakinmina duen norbanakoek edo taldeek parte hartutako dutena.